

Hogeta bat kilometro izango ditu aurtengo Ubideko Birak

10. orrialdea

Maratoi Txikia bagilaren 4an

Arratiako XXXVIII. Maratoi Txikia bagilaren 4an izango da. 11 km. ditu probak baina edade baxotxari egokitutako ibilbideak dagoz. Nagusiak Zea-nuritik urtengo dira 10:15ean. Arteatik 10:30ean eta Dimatik 10:00etan izango dira urtekerak orduak. Txikerrenak, 10:00etan egingo dabe zirkuitu bat eskoletan. Arteatik patinetan be egin daiteke bidea. **11. orrialdea**



Arratia-Nerbioi eskolarteko pelota finalak Areatzan hilaren 3an

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

275

2017ko bagilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org



Organikoak konpostatzeko proiektu pilotoa martxan

Baseritarrak ekoizle handien hondakin organikoak atez ate jasoteko proiektu pilotoa abiatu dabe Arratian. Igorreko Artadi Mintegiko Geert Roels-ek astean hiritan, hainbat taberna eta enpresatako hondakin organikoak jasoten dauz konposta egite-

ko. Holan, hondakin organiko ekoizle handiak atez ateko zerbitzua jasoten dabe. IK4 Azterlanek proiektuaren bideragarritasuna aztertzen dau eta Arratiako Udalen Mankomunitateak hurretik jarraituten dau eredu hau Arratian ezarri ahal dan jakiteko. **8. eta 9. orrialdeak**

Hasi da jaietarako atzerako kontaketea



Bagilaren 9an arrastiko zazpiretan Ismael Pereirak, "Ismael" botako dau txupina Igorreko udaletxean eta Arratiako herrietako lehenengo jaietan murgilduko dira arratiarrak hamar egunez. Sano egitarau potoloa prestatu dau Igorreko Jai Batzordeak, 60 ekintzatik gora, hain zuzen be.

Kontzertuak jagokienean sano eskeintza ugaria da aurtengoa: cumbia, hip hop, ska, punk eta hardcore-a, tartean. Erromeriak be ez dira faltauko. Guztira, hamabost talde inguruk eta hiru elektrotzarangak, besteak beste, ipiniko deutsee soinua jaiak. Kontzertu eta erromeria gehienak bariku eta zapatuetan 23:00etatik aurrera izango dira.

Antzerkia, lehiaketa gastronomikoak, Kua-drillen Olinpiadak, umeentzako jolasak... Kirol eskeintzeari jagokonean, mendi ibilaldia, errugbia, txirindularitza, zunba eta eskupe-lotea dagoz egitarauan. **5. orrialdea**

ZEANURI

Zulaibar Europako Lanbide Heziketea ezetuten

Europako Lanbide Heziketako beste eskola eta enpresak ezetuteko beak jaso ditue Zulaibar Ikastetxeko irakasleak. Hori dala eta, Stuttgart-eko (Alemania) Lanbide Heziketa dualaren gaineko topaketetan parte hartu dabe maiatzean; bagilean München-era (Alemania) joango dira energia barriztagarrien azokara eta Salzburchen (Austria) beroko estanzazina teknologia barriaren ezagutzan sakonduko dabe. Herri horreetan ikusitakoa ez bakarrik ikastetxeko irakasle eta ikasleen artean, baita Arratiako enpresetan be zabalduko dabe.

Eskoziako Dundee herriko, Dundee and Angus College be bisitatu dabe irakasleak. **7. orrialdea**

DIMA

Dimesten proiektuko unidate didaktikoa banandu dabe eskolan

Dimesten Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra proiektuak lehenengo unidate didaktikoa banandu eban maiatzaren 30ean Ugarana eskolako umeen artean. Jentiltxu eta Jentili personajeak, Dimako mapak, ipuinak eta herri sortutako kantuak banandu eutseezan umeai.

Dimesten proiektua orain urte bi sortu zan, hezkuntza arautuan eta ez arautuan eragiteko. **7. orrialdea.**



662 568 707
info@iredglobal.com

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiliz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta.

Vodafoneko banatzaile ofiziala

LEMOA

Mobilizazioak Cementos Lemonan

Cementos Lemonako beharginak mobilizazioak egin dabez maiatzaren 11, 18, 23 eta 29an, Zuzendaritzaegaz akordioa lortuteko negoziatzina mahian dagoan blokeoa salatuteko. Lan baldintzak hobetutea, aldi baterako onartu ziran egoerak atzean ixtea eta etorkizunerako egonkortasun bermea adostutea eskatzen dabe. Cementos Lemona sortu zaneko 100 urte bete dira eta Enpresa Batzordeak gogoratu gura izan deutso Zuzendaritzeari, hori "beharginen belaunaldi batzuen ahaleginari esker" izan dala. **7. orrialdea**

ZAZPI HAIZETARA



GORA IGORREKO JAIK !!!

BERTAKOA KONTSUMITZEAK HERRI EGITEN GAITU

Euskal Ekoizleen Aldeko Ekimena

Agirre Lehendakaria 11



ARRATIA KOLOREETAN

UDAN ONDARRURA JOANGO GARA

Denpora ona eta oporrakaz batera badatoz udaleku itxiak! Aurten 22.ak ospatutako Ondarrura joango gara. Urte honeetan modu autogestionau baten ibili gara gure proiektua aurrera erosten, hainbat helburu eta kezka diferentegaz. Azkenengo urteotan 6 eta 17 urte arteko 80 ume eta gazte inguru eroan doguz gugaz, abuztuko lehen hamabostaldia pasetan. Baina azkenengo urteotako errealitatea da hainbat ume eta gazte kanpoan gelditu dirala egon dan eskeintzeari aurre egiteko gai ez garalako izan. Gure ustez hau ez doa gure filosofiagaz bat. Izan be alkarte publikoa garana lez, eta gure helburua herri guztia udako aukera bat emotea danez, horri buelta

bat emotea pentsau genduan. Orduan aurten aldaketa potolo bategaz gatzoz. Lehenengoz apuntetan diran danak eroango doguz, 140 ume eta gazte inguru! Udalekuetako prestakuntzeagaz hasita gagoz eta lehen esan dogun moduan programazioari buelta handi bat emon deusagu aurten. Aldaketa horren ondorioz gure kezka handiena etxean jente asko batutea da, izan be, gure helburuetako bat persona guztiengana heldutea eta danok batera goxotasunezko inguru bat sortutea da. Orduan... (tanbor zaratea... porrompompom...).

3. DBHtik aurrera oinez joango gara 4 egunean zehar Arratiatik Ondarrura, bidean hainbat baba oinetan, negar, abentura, mosu,

besarkada... eta batez be barre ta libertimentuz¹ inguratuta. Nagusienak hasi gara bide honen lehenengo pausuk emoten, modu parte-hartzaile baten ametsetako uda antolatuten.

Bitartean ume eta gaztetxoak etxera joango dira zuzenean, autobusez. Bertan *zaztamunduan* murgilduko gara, hainbat ekintzaz eta espazioz disfrutetan. Nagusiak helduteaz batera, euri tokauko jakie hankak mobidutea eta Ondarruko inguruez disfrutetea. Baina ez pentsau bi udalekuak era paraleloan joango diranik. Azkenengoko 4 egunak danok batera pasauko doguz, gure betiko Zaztapar familia giroa sustatuz eta ume-gazte-hezitzaile arteko hartu-emona eta banakakoaren autonomia bultzatuz.

Aldaketa danakaz pasetan dan moduan seguru gagoz honek be

hasikeran bertigo apur bat emongo daua. Baina guk proiektu honetan sinisten dogu eta gure nortasunen arabera lanean segiduko dogu, danok batera Arratiari aisialdi alternatibo bat eskeini guran.

Beraz, hasi entrenetan (batez be nagusienak!), kargau motxilak ilusinoz, indarrak eta ganakaz, Ondarru konkistetan goaz-eta!

¹ Libertidu: Zaztaparron filosofiako ardatza. Libre izanez dibertidu.

Zaztaparrak Asti Taldea



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 29tik bagilaren 4ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 5etik 11ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 12tik 18ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioria

94 673 92 26

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Emma Aguilar, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Plazea

Plazea... zelan definiduko neuken? Galdera polita.

Burura jotortan lehenengo berbea "herriko bihotza" da; herriko espazio berezi hau, nik neuk holan definiduko neuke.

Gure herrian aspaldian, gai hau pil-pilean dago. Udalak urtailean Bizi plaza prozesu parte hartzailea martxan ipini eban, plazeak bere izakerea erabat galdu daualako.

Plazea espazio publikoa da, herritar guztiona da, danok gozatuteko gunea: kotxedunak eta kotxebakoak, umeak, helduak zein edadeko jentekak. Bertan azokak, ekintza sozialak, topaketak eta kultura ekintzak sustatzea leiteke bidezkoena.

Nork ezagutzen dau plaza bako herririk? Ez dago. Munduko edonongo herrira goazenean plazea da erdigunea, bihotza. Bihotz txikia edo bihotz handia, baina plazea da herriko bizitzaren motorra.

Eraikin eta monumentu esanguratsuenak be plazetan topatzen doguz; udaletxea, kultur etxea, eleizea... adibidez.

Sano oroitzapen politik daukadaz txikitan bizi izandako plaza haretaz, lagunakaz hara-hona olgetan, gora eta behera... zenbat ordu emon ete dodaz udaletxeko

arkupetan kromoetan, kaniketan, leku batetik bestera arrisku barik? Kotxeak egon egoten ziran baina gaurko erdirik be ez.

Poztasun handia emoten deusta beste herriko plaza batera noanean eta adin desbardineta jentea bere aisialdiaz disfrutetan arrisku barik ikusten dodanean; batzuk berbaz, beste batzuk jarrira, umeak olgetan... Hori da herri osasuntsu baten irribarrerik politena.

Aspaldian joan zan gure herriko plazaren xarma, eguerdiro kotxez beteta dago eta astegoienetako egoera ez da jasagarria. Herritarroi bizi kalidadea ostu deuskuela esango neuke, makinak personaren gainetik ipinten doguzalako, eta gitxi batzuen erosotasunaren izenean denpora guztian oinezkoen eskubideak zapaltzen dira.

Plazea, nire herriko bihotza gaixorik dago, eta halan herritar gehienon bihotza gaixorik dago.

Badaukat gogoia apurka-apurka, taupadaz-taupada gure herriko plazea barriro irribarrez ikusteko, personak topetako bidean, bizidunak azken finean.

Biziteko plazak herria bizipenez beteten daualako.

Bizi plaza, plaza bizi.

YOLANDA PALACIOS

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Kereixa



Udabari amaieran eta uda hasieran helduten dan frutu gorribaltz hau estimaduetako bat izaten da frutu guztien artean. Sano goxoa dalako, jakina. (Ahoskerea: kerixéa, kérixak Diman; kerexéa Zeanurin; eta kereixéa Lemoan). Batuan, gerezi da. Kereixa berbeagaz lotutako esamoldeak: "Kereixakaz, urik ez!" (asko jan ezker, beherantzakorik ez izateko formula); eta "Gabonetan, kereixak!", esker ona ez ordainduteko erea.

ERETXIA

Hondartzan disfrutetako prest?



GARIKOITZ GARCIA DE KORTAZAR ALONSO

Soroslea

Sorosleak hondartza denporaldian zauriak, ebagiak, traumatismoak, medusen edo eltxoen zitzadak eta antzeko istripu zein ezbeharrai aurre egiten deutsegu.

Gure zeregin garrantzitsuenetarikoa batzuk hondartzetako erabiltzaileen segurtasuna zaintzea eta bermatzea dogu.

Segurtasunaren esparruan, egunero 11:00etatik 20:00etara, salbamentu eta sorospen zerbitzuan jardungo dogun lantaldea uretako 154 soroslek osatzen dogu, Koldo Larrazabal koordinatzaile nagusiagaz eta gure koordinatzaileakaz bat eginda.

Erreskaterako erabiliko dogun materiala hondartza bakoaren ezaugarrien arabera izango da, baina nabarmendu behar dogu 4 salbamentu ontzi, uretako 4 motor, erreskaterako 3 quad eta 9 buggy (horreetako bi elektrikoak) eta 7 auto daukaguzala gune koordinatzaileetan. Gainerako materiala be kontuan hartuta, 14 zaintza-torre, 40 desfribiladore erdi-automatiko, 30 glukometro, 40 pulsiometro eta 30 inobilizazio-ohatila daukaguz.

Era berean, hondartza guztietan 'Ume galduak' eskumuturrekoen zerbitzua manteniduko da. Horren helburua hondartzan galtzean diran umeak identifikatzea eukitea da. Zerbitzu hau igazko denporaldian 20.000 personak erabili eben.

Hondartzetako segurtasunaren beste zutabe bat hondar-zainen zerbitzua da. Aurten 30 lagunek jardungo dabe zerbitzuan 10:00etatik 20:00ak arte.

Nire ustez hondartzak, itsasoak, kostaldeak... nire errespetua daukie. Hiru urtez salbamentu eta erreskateko esparruan formakuntza jaso eta lan egin ondoren konturatu naz formazio handia izanda be natura beti garaile urtengo dala. Hau da in-

formetera natorrena. Kasu honetan kostalde bizkaitarrak arrisku asko daukaz eta udan persona gehienak, zoritxarrez, ez dira horretaz konturatzen.

Aurretiaz dakit Arratiak ez daukala kostalderik, beraz ondorioztatu dot Bizkaiko kostaldeko hondartzetan gozaten dogula, baita Gipuzkoako eta Kantabriakoetan be.

Lehenik eta behin, hondartzara joan baino lehen jakin behar doguna da ea zegaz topo egin ahal dogun, hau da, aurretiaz informau irratitik, aldizkarietatik, telebistako eguraldi saioetatik... eta bigarrenik, eguzkitako krema eroatea bainujantzia baino garrantzitsuagoa dala.

Hondartzara heldu eta jarraian bertako banderak begiztatu behar dira, hau da, itsasoaren egoera edozein momentutan aldatu ahal dalako eta banderea be horregaz batera aldatzen dalako. Kolore berdeak arrisku bako bainua adierazoten dau; horiak, arretaz hartu behar dala bainua, eta gorriak, bainua guztiz debekatuta dagoala. Bandera gorria dauan momentuan, hondartzako jentea freskau daiten, sorosleak gune txiki bat moldatuko dabe bandera hori biren artean.

Esan beharra dago beste urte batez be, Bizkaiko hondartzak seguruak izaten jarraituko dabela eta hondar-zain eta Bizkaiko Gurutze Gorriko sorosleak babes-tuko dabezala.

Amaitzeko, azpimarratu Gurutze Gorria Bizkaia eta Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzua bagilaren 1ean hasiko eta urri lehengoaren 30ean amaituko dala. Espero dogu beste urte batez disfrutatzea! eta gogoratu: hondartza danona da.

Eskerrik asko zuen arretagaitik eta esandakoa, segurtasunik onenagaz ondo pasau udea.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endaketa Batzua

MONDRAGON

LUMATUTEN

MAITE ARTABE
URKIRI

Fabrika kumeok

Gertatzen jat niri izen-abizenak aurkeztu, nire hizkera entzun eta segiduan pentsetan dabela baserri ingurukoa nazala. Igarrita nengoan hori eta oraintsu irakurri dodan Teresa del Valleren zita baten aurkitu dot zergaitia.

Teresa del Vallek 1981ean esan eban: "XX. mendearen bigarren hamarkadan sortzean dan antropologian 60ko hamarkada arte (Telesforo Aranzadi, Joxemiel de Barandiaran) kulturearen deskribapen eta sailkapenari emongo jakie lehenetasun osoa, kulturaren ikuspegi estatiko eta idealizaua sortu arazoz eta nekazari kultura eta euskal kultura baliokidetuz".

Baina nekazari kultura eta euskal kultura bat egite horrek ni lango hainbat fabrika kumearen errealitatea inbisibilizatu egiten dau, ze ez izan dudarik, geurea be euskal kultura da.

Guk ez genduan zuzenean ikasi noz landatu tomateak eta

zer egin gorrina daukienean baina ondo genkian beharginak laminatuko tonen arabera kobretan ebela eta zenbat egin ebezan egun haretan, sirena hotsak marketan ebezan egunak eta lan-istripuak kronika baltza.

Ganorazko aitak sobrea osorik ekarten eben etxera eta Karmenetan, pagadoble sasoiari, hor gozan gu Laminorreko seme-alabak, ondo pozik erropa barriakaz.

Laminor I

Galdetzen dio alabak bekarako inprimakia betetzean, aita, Profesión? laminador de 1ª erantzuten dio harro.

Eskolan hinke-sasoiari denek nahi dute laminadorearen alabarekin olgau; berea da hinkerik onena.

Miresten du alabak burdin-lana gorria hain hurbiletik lantzeko balentria.


Burdinak lehertarazi du aitaren bihotza, burdinak sozializatu alabarena.

Burdin-hotsa buruan, beti pertsonaren alde, beharginaren alde.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Areatzako The Quiet Corner
tabernearen 5. urteurrena

Pasa dan maiatzaren 18an, The Quiet Corner izeneko euskal-irlandar esperientzia abiatu zaneko 5. urteurrena ospatu genduan. *Good Beer, Good Music and Good Friends* (garagardo ona, musika ona eta lagun onak) disfrutetan, bost urte bete dira. Hurrengo urteetan be geure printzipioetara fidelak izaten jarraitutea espero dogu.

Irlandagazko gure loturetako bat Piru Gainza da, Dublin-go adar-zabala. Omenaldi moduan berari eskeini deusagu *corner* bat gure lokalean. Agustin Gainza (21 urte Athletic-en), Jose Angel Iribar (18 urte) eta Txetxu Rojo-gaz (17 urte) batera, -atzen bi honeek gure ospakizunean egon ziran- Athletic Club-agaz eta bere printzipioakaz lider dira fidelotasun eta konpromisoari jagokonean. Eredugarri, sasoi honeetan.

The Quiet Corner



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

Hamar egun eta hamaika gau, jai sasoari hasikerea emoteko

Bagilaren 9an barikuz, Ismael Pereira "Isma" konkistadoreak botako dau txupina jaiari hasikerea emoteko eta hilaren 18ra arte, jai egitarau zabala prestatu dau Jai Batzordeak herriko jaiak ospatuteko. Astegoen bietako bariku eta zapatuetan, musika estilo askotako kontzertuak egongo dira 23:00etatik aurrera eta ordu txikietan erromeriak. Antzerki eskeintzea umorez beteta dator aurten eta Las Felliniren ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da Igorren.



Erredakzioa

Txupina hilaren 9an botako daben arren, ordurako jaigiroan murgilduta izango da Igorre. Izan be, bezperan, kalejira feministea antolatu dau Noka taldeak, festa hasteko eta Igorrek eraso sexista bako jaiak gura dituala gogora ekarteko. Arrastiko 19:00etan abiatuko dira Kultur Etxetik eta herria pankartakaz jantzi eta pegatinak bananduko dabez.

Eraso sexistak egon ezker, zer egin behar dan azalduten dauan kartelak ipiniko ditue tabernetan, eta eraso sexista, homofobo eta errazistai erantzuteko protokolo bat be ezarri da. Protokoloa txosnetan bananduko da.

Hurrengo egunean hasita, ume,

gazte eta edadekoentzako 60 ekintza desbardin baino gehiago antolatu ditue Igorren. Gauetan, musika eskeintza handia egongo da; La Basu-ren rapa edo Desore Igorreko taldearen rock-a izan dai-tekez aniztasun horren adierazle. Izan be, cumbia, ska, hip hop, punk eta hardcore estiloko kontzertuak, eta ostean erromeriak, ez dira falta-ko Igorreko jaietako gauetan.

Bagilak 9, barikua

17:00etan, Pankarta Lehiaketea eta kalejira txosnagunetik hasita.

17:00etatik 18:00etara, umeentzako jolasak goiko plazan, Zaztarrak-en eskutik.

18:00etan, Larrain Dantza goiko plazan.

19:00etan, txupinazoa.

Ostean, kuadrillen argazkia.

20:00etan, Kuadrillen arteko Olinpiadak goiko plazan. Eternal Ginkaning!

20:00etan, Elektrotxufa elektrotxarangea.

23:00etan, kontzertuak: La Terro-rista del Sabor, Tremenda Jauria eta Oxabi taldeagaz erromeria.

00:00etan, Zu bai zu Talentu Lehiaketea.

Bagilak 10, zapatua

08:30ean, Igorreko ermitetatik ibilaldia Jubiladuen eskutik (Urtekeria Kultur Etxearen aurrean).

11:00etan, integrazino Rugbya Gorabide alkartekoakaz, 105eko rugby zelaian.

12:00etan, Paella Txapelketea txosnagune ondoko landan (eguraldia

txarra bada eskoletako aterpean).

14:30ean, paellen aurkezpena.

16:00etan, Bizkaiko Rugby Zazpi Kopa 105eko Rugby Zelaian.

20:00etan, Ttek elektrotxarangea.

20:00etan, Luis Iruarrizaga, Urduñako Korala eta Uri-oste Korala, Lasarte Aretoan.

23:00etan, Kontzertuak: Skabi-dean, La Basu eta Lehian erromeria.

Bagilak 11, domekea

11:00etan, Txirrindulari Lasterketea: XXIII. San Antonio Saria.

17:00etan, magoa txosnagunean.

18:00etan, umeentzako bits festa txosnagunean.

19:30ean, *Gezurretan/Contando mentiras*, Andren Jabekuntza Eskolako Antzerkia, Lasarte Aretoan.

Bagilak 12, astelehena

16:30ean, umeen karaokea txosnagunean.

19:00etan, Arantzarte txosnagunean.

21:30ean, Las Fellini-ren antzerkia Lasarte Aretoan.

Bagilak 13, martitzena

11:00etatik 14:30era, Txutxu tren-ena AMEren eskutik txosnagunean hasita.

11:30etik 13:30era, puzgarriak eskoletan.

12:30ean, mezea San Antonio ermitan.

17:00etatik 19:00etara, puzgarriak eskoletan.

17:00etatik 19:30era Txutxu tren-ena AMEren eskutik txosnagunean hasita.

19:00etan, Astrapalea Rock Esko-laren kontzertua txosnagunean.

Bagilak 14, eguaztena

17:00etan, Gazteen Olinpiadak Kultur Etxeko plazan.

18:00etan, Arratiako Musika Eskolearen lehenengo emonaldia.

18:30ean, Zunbathoia txosnagunean.

19:30ean, Arratiako Musika Eskolearen bigarren emonaldia.

Bagilak 15, eguena

17:00etan, umeen Play-backa txosnagunean.

18:30ean, trikipoteoa txosnagunean hasita.

21:00etan, herri afaria eskoletako aterpean. Pijama Party (dano-k pijamaz jantzita).

Ostean Bingoa eta Patxakurreo gaua txosnetan.

Bagilak 16, barikua

08:30ean, herri armozua, AZ Rugby tabernaren ondoan.

17:00etan, Tortilla eta Pintxo Txapelketea txosnagune ondoko landan. (Eguraldia txarra bada eskoletako aterpean). Izen emotea 3€.

19:00etan, tortillen aurkezpena.

19:30ean, pintxoan aurkezpena.

20:00etan, Fritanga elektrotxarangea.

22:00etan, kontzertuak: All I need, Desore eta KOP.

Ostean, Urrats taldeagaz erromeria.

Bagilak 17, zapatua

09:00etatik 20:00etara VI. Mille Baietz, Intxaurbizkar Kultur Elkar-teak antolatuta.

12:00etan, serigrafia tailerra Torontile-gaz Kultur Etxeko parkean.

16:00etan, pelota partiduak: umeen pelota partiduak.

Ostean Olaizola-Pascual eta Elezkano-Oier Etxebarria.

17:00etan, umeentzako jantzialdia eskoletan.

17:30ean, Umore Rallya txosnagunean hasita.

21:00etan, La Jodedera Kultur Etxeko plazan.

23:00etan, kontzertuak: Zona Especial Norte (R.I.P-en tributoa), La Txirla Records (La Polla Records-en tributoa).

Ostean, Aldats taldeagaz erromeria eta DJ Isma.

Bagilak 18, domekea

13:00etan, Areatzako Banda.

14:45ean, Jubiladuen bazkaria eskoletako aterpean.

19:30ean, Jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketetako sari banaketea.

Jarraian, Jokaldi AMEren eskutik Kultur Etxeko parkean (eguraldia txarra bada txosnagunean).

Bitartean, Kuadrillen Olinpiaden sari banaketea eta zozketea.

Amaitzeko, txokolatada Presoen Lagunen eskutik.

Gora Igorreko Jaiek!

jai batzordeak eta Igorreko Udalak jai zoriontsuak opa deusuez

begitu
anillo uhala sabela

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

ZEBERIO

Sanantonioak Ermitabarrin

Erredakzioa

San Antonio jaiak hasikerea emoteko, bagilaren 9an, barikua, botako dabe txupina arrastiko seiretan. Orduetik ez da jai giroa faltauko Ermitabarrin: erromeriak, umeentzako puzgari eta tailerrak, bola jokoa, kutxen eskaladea, herri bazkaria... San Antonio egunean mezea egongo da ermitan eta ondoren barauskarria.

Bagilak 4, domekea

09:00etan, Zeberio XTrem BTT Martxea.

Bagilak 9, barikua

18:00etan, txupinazoa.
18:30ean, pelota partiduak.
21:00etan, sardina jana.
21:30ean, Bidean Erromeria eta Akabu taldea.

Bagilak 10, zapatua

10:00etan, plater tiroa. Herri mailakoa.
12:00etan, puzgariak eta umeen tailerrak.
13:30ean, poteoa.
14:30ean, herri bazkaria.
16:00etan, plater tiroa. Bazkideak eta federatuak.
16:00etan, puzgariak eta umeen tailerrak.
18:00etan, lurretik zerura kutxen eskaladea. Irabazleentzako sariak.

18:30ean, bola jokoa.

19:30ean, herri meriendea.

19:30ean, Elektrotxufila kaleko banda.

21:30ean, erromeria Trikimailu Erromeixa Taldia-gaz.

01:00etan, txokolata.

Bagilak 11, domekea

12:00etan, helduen Pato Lasterketa.

12:15ean, umeen Pato Lasterketa.

13:30ean, Beñat eta Olatz trikitilariak.

18:30ean, kontzertua Cloverwind taldeagaz.

Bagilak 13, martitzena

12:30ean, mezea ermitan.

13:00etan, barauskarria.



ARRATIA

Arantxa Tapiak Errotaren lanaren barri jakin gura izan eban

Erredakzioa

Maiatzaren 23an, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuneko sailburua Arratian egon zan Lemoan Arratiarrakaz berbetan zikloan parte hartzeako. Hori dala-eta, lekutxo bat egin eutsan agendan, Arratiako Garapenerako Errotak Areatzan daukan bulegora hurreratu eta Iratxe Goikoetxea koordinatzaileagaz

berba egiteko.

Lagunarteko giroan batu ziralda eta sailburuak bere laguntza osoa eskeini ebalazaldu deitso BEGITURI Goikoetxeak. "Sailburuari gure proiektua azaltzeko aukerea izan genduan, zelan sortu zan Errota, Arratia 2030 ikuspegia, Errotaren erronkak, eta baita 2017rako adostutako helburuak eta momentuan esku artean doguzan proiektuak be.



Arantxa Tapia eta Iratxe Goikoetxea.

ARRATIA

Jarraipen zabala izan eban Hezkuntza publikoko grebak

ELA, LAB eta Steilasek maiatzaren 16an eta 23an

deitutako grebeagaz bat egin eban Arratiako

ikastetxeetako irakasle, ikasle eta beharginak.



Maiatzaren 23an Igorren egindako konzentrazioa.

Erredakzioa

Irakasleen artean jarraipena %77,8koa eta %84,8koa, izan zan, 16an eta 23an hurrengo hurrengo. Greba egiteaz gainera, 23an, irakasleak alkarretaratzea egin eban Igorren eta gero Bilboko manifestazioan parte hartu eban.

Aurreko greba deialdietan legez, unibersidadez kanpoko Hezkuntza publikoko irakasle, heziketa bereziko langile, sukaldari, garbitzaile eta Haurreskolak Partzuergoko beharginak egozan deituta, inbersinoak, plantillak eta baliabideak handitzea eskatzeko.

Jarraipen zabalagoa 23an

Ikastetxeetako iturrien arabera, maiatzaren 16an jarraipen handia izan bazan be, zazpi puntu gora

egin eban jarraipenak hurrengo astean. Lemoako JB Eguzkitza Meabe eskolan, laboral guztiak eta irakasleen %84k egin eban greba; 23an, %85ek. Dimako Ugarran, %73,6tik %78,9ra pasau zan kopurua eta Zeberioko Zubialden, grebari jarraipena erabatekoa izan zan egun bietan. Zeanuriko eskolan, barriz, kontrako joerea egon zan eta 16an gehiago izan ziran grebara batu ziranak (%86,67); 23an baino (%81,25).

Arteko Ikastola Arratian, egun bietan %80ko jarraipena izan eban grebak. Areatzako Herri Eskolan segimentua %53koa izan zan lehenengo egunean, eta %88,2koa hurrengoan. Igorreko I. Zubizarreta eskolan, gora egin eban, %80tik %100era pasauz.

Arratia Institutuan %65koa izan jarraipena deialdi bietan.

ARRATIA

Ortuzar eta Atutxa Areatzan EAJren alderdikide egunean

Erredakzioa

Bagilaren 3an, EAJ-PNVk Arratiako alderdikideen eguna ospatuko dau Areatzan. Eguna, mitinagaz hasiko da eguerdiko 12:00etan, plazan. Bertan, Andoni Ortuzar EAJren Euzkadi Buru Batzarreko presidentea eta Itxaso Atutxa, Bizkaiko Buru Batzarreko presidentearen berbak entzuteko aukerea egongo da.

Ondoren, musikeak, triki poteoak, jaiak eta umeentzako puzgariak ipiniko dabe jaigiroa. Izan be, egunaren helburu nagusia, Arratiako alderdikideak alkar ikustea, alka-

regaz berba egitea, eta alkarregaz ondo pasetea da, Josune Gorospe EAJko legebiltzarkide dimoztarrak bere facebookean gogoratzen dauan moduan.



Itxaso Atutxa.

ARRATIA

Galdakaoko ospitalerako Arratiako sarbidea zarratuta dago

Erredakzioa

Maiatzaren 29tik bagilaren 15era bitartean, Arratia eta Galdakaoko ospitalea lotzean dauan errepedean trafikoa zarratuta egongo da. Izan be, AP-8 eta N-240 bidekurutzetan egiten dabazan lanak dirala eta, ospitalera ezin izango da sartu N-240ko Bilborako noranzkotik, Arratiatik doan bideko sarbideetik hain zuzen be.

Hori dala eta, Arratiatik ospitalera joateko, autopistara sartzeako errotondara jo beharko dabe eta han zentzu aldaketean egin, ospitalerantzako norabidean.

IGORRE

Bagilako lehenengo astegoienan Basauntz auzoko jaiak ospatuko dira

Erredakzioa

Bagilaren 3an izango da jaietako egun handia. Lehiaketa gastronomikoak eta Tute eta Mus Txapelketak egongo dira egun horretan. Bezperan, zinea euskeraz ikusteko aukerea egongo da auzoko ermitan eta San Juan bezperan, mezea.

Bagilak 2, barikua

22:00etan, zine emonaldia ermitan. *Igelak* filma.

Bagilak 3, zapatua

11:00etan, argazki erakusketea auzoan.

12:00etan, izen emotea Paella eta Tortilla Lehiaketetarako. Tortillak patata eta kipulea izan behar dabe eta paellea okelazkoa. Sua egurragaz egin behar da.

14:00etan, tortillak aurkeztu.

14:30ean, paellak aurkeztu.

Ondoren sari banaketea.

17:30ean, Mus eta Briska Txapelketak. Izen emotea 5 euro bikoteko izango da. Lehenengo saria 80 euro bikoteko eta bigarrena 40 euro.

Bagilak 23, barikua

12:30ean, mezea ermitan.

ZEANURI

Zulaibarreko irakasleak esperientziak eta formakuntza konpartiduten dabilz European zehar

Europako Lanbide Heziketako beste eskola eta enpresak ezetuteko bekak jaso ditue Zulaibar Ikastegiko irakasleak.

Erredakzioa

Holan, Stuttgart-eko (Alemania) Lanbide Heziketa dualaren gaineko topaketetan parte hartu dabe maiatzean; bagilean München-era (Alemania) joango dira energia barriztagarrien azokara eta Salzburgon (Austria) beroko estanzinoia teknologia barriaren ezagutzan sakonduko dabe. Herri horreetan ikusitakoa ez bakarrik

ikastetxeko irakasle eta ikasleen artean, baita Arratiako enpresetan be zabalduko dabe.

Europako hainbat ikastetxetan legez, Zulaibar Ikastegian be Lanbide Heziketa duala emoten dabe. "Momentu honetan eztabaida dago European Lanbide Heziketa dualaren inguruan eta hainbat herrialde batuko dira eztabaidan parte hartzeako. Gu be joango gara Stuttgarteko to-

paketetara eta ikastaroak eta esperientziak partekatuko doguz maiatzaren 22tik, 26ra. Ikasten doguna Arratiara ekarriko dogu, baita Bizkaiko beste zentroetara be" azaldu deutso BEGITURI Arkaitz Bernaola Zulaibarko irakasle eta zuzendaritzako kideak.

Beroko estanzinoaren nondik norako guztiak ikasteko Benteler enpresea bisitatu dabe Salzburgon. Data zehaztu barik dago, baina teknologia barri hau batez be kotxeetako piezak egiteko erabilten da eta han ikusitakoa automatizazio enpresentzat interesekoa izan daitekela uste dau Bernaolak.

München-eko energia barriztagarrien azokan dagoz egunotan Zulaibarko irakasleak, Instalazio Elektriko eta Automatikoak zikloan puntako teknologien ezagutza eguneratuteko. Izan be, energia sortu eta kudeatzeko modua aldateta prozesuan dago. "Hemetik urte batzuetara energia eskualdeka edo guneka ekoiztuko da. Ez da izango oraingo moduan, zentral termikoetan edo presa baten edo dana dalakoan ekoiztu eta



Dundee and Angus Lanbide Heziketako zentroa.

gero energia hori sareen bidez banandu. Eskualde bakotzak edo komunitate bakotzak eukiko dau bere energia sortzeako aukera eta ez da ibiliko beste lekuetatik ekarten" dino Bernaolak.

Eskozian curriculum personalizatuak

Hetel, Heziketa Teknikoko alkatetako kidea da Zulaibar. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lanbide heziketako 20 ikastetxek osotuten dabe Hetel. Komunikazio talde bat Eskoziako Dundee herriko, Dundee and Angus College bisi-

tau eben maiatzean.

Eskola haretan be formakuntza duala emoten dabe, ikasleak arreta personalizatu daukie, taldean egiten dabe lan eta arazoak daukiezantzeko lan mundura hurreratzeko programa berezi bat dago. Baina hemen ez bezala, han, formazio dualeko enpresa bakotzak programa berezia dauka. Bernaolak dino hemengo curriculum-a zurrungoa dala, haxe bete behar dala eta ezin dala persona eta enpresa bakotxari egokitu.

Baloreen transmisioari garrantzia handia emoten deutse Eskozian eta eskolan errespetua, motibazioa eta osasuna landuten dabe etenbarik. Dundee and Angus ikastetxeak, enpresea sortzeako aholkularitza, espazio bat, mahaia, ordenagailua eta behar diran instalazioak ipinten dauz urtebetez, eta urtean-urtean 50 enpresa inguru sortuten dira eskola haretatik. Zulaibarren be badagozala aukera eta instalazioak, baina jentea ez dagozala hain prest enpresa bat sortuteko dino irakasleak.

DIMA

Jentiltxu eta Jentili unidate didaktikoa aurkeztu dabe Dimako Ugarana eskolan

Erredakzioa

Maiatzaren 30ean, Jentiltxu eta Jentili, eskolan egon ziran umeai karpeta bana banandu eta herriari buruzko unidate didaktikoa aurkezten. Ugaranako mapea eta Dimako mapea, Dimako auzoak non kokatzen diran ikusteko, personaje bakotxaren gaineko ipuin bat eta pintetako marrazkiak eta herrian egindako kantzak jasoten dauan CD bat jaso ebezan eskolako umeak.

Unidate didaktiko honen sorrera lotuta dago Herri Hezitzailearen kontzeptuagaz. Askotan umeak urruneko gauzak ikasi bai, baina bertakoak ez dabezala ezetuten dinoe egileak. "Guretik abiatu gura dogu, euskeraz eta gure tradizio eta gure lurraldetik, gero mundura abiatzeko. Hau dana sartzean da Dimesten proiektuan. Lotura dauka herriko alkarte guztiakaz, eta gurako geunke alkarte bakotzak fitxa bat egitea". Izan be, proiektua herri proposamen bat da, hezkuntza arautuan eta ez arautuan landuteko.

Umeak materiala jaso badabe be, gurasoakaz landutea gura dabe Dimesten-ekoak, transmisioari garrantzia emoteko. "Hau ez

da eskola eremuan geratuko. Eskoleak, komunitateak, eta Udalak, hirurak daukie erantzukizuna, Hezkuntza modu integratzailean ikusten dogulako. Herritarak eta gurasoak be bai".

Unidate didaktikoa modu orokorrean eginda dago, irakasleak moldatu dagien ikasleen edadeari. Esate baterako, ipuinak irakurri egingo deutseaz 2 edo 3 urteko umeai, edo irakurmena

landuteko erabiliko dabez irakurten ikasi dabenakaz.

Jentiltxu eta Jentili

Ikasteko biaje honen gida, proiektu honetarako sortutako Jentiltxu eta Jentili personajeak izango dira. Hamaika urte inguruko ume "jentiltak" dira eta, beste superpodere batzuen artean, denporan atzera eta aurrera egiteko daukie. Jentiltxu Barronbarron jaio zan Keixako hatxan bizi da. Jentili barriz, Axlorreko harpean jaio zan eta Keixan bizi da. Metrakazulotik sartzean diran bakotxean denporan aurrera eta atzera joan ahal dira.

Holan, Dimako geografia, historia, mitologia eta herriagaz lotutako edozein jakintza erakutsiko deutseaz umeai.



Jentili eta Jentiltxu.

LEMOA

Mobilizazioari ekin deutsee langileak Cementos Lemona negoziatzinoetako blokeoa salatuteko



Erredakzioa

Cementos Lemonako Enpresa Batzordeak prensa-ohar batez jakitera emondakoaren arabera, Enpresa-komiteak bost hilabete baino gehiago daroaz zuzendaritzaegaz akordio bat lortu guran, eta negoziatzino mahaian dagoan blokeoa salatuten dau. Beharginak lan baldintzak hobetutea, aldi baterako onartu ziran egoerak atzean ixtea eta etorkizunerako egonkortasun bermea adostutea eskatzen dabe. Enpresa Batzordeak Zuzendaritza egiten dau negoziatzino mahaian dagoan blokeoaren erantzule, eta akordio lortzeako borondate faltea egotzi deutso.

Hori dala eta, lau mobilizazio

egin ditue beharginak, maiatzaren 11n, 18an, 23an eta 29an, hain zuzen be, eta Zuzendaritzak bere jarkerea aldatuten ez badau, mobilizazio gogorragoak iragarri ditue. Izan be, "2014tik hona enpresek bilakaera positiboa izan dau, alde ekonomikotik zein produktibotik" eta ez dabe akordio bat lortzeako enpresearen jarkera itxia ulertuten.

Cementos Lemona bere mendeurrenko ospakizunak prestatzen dabilen bitartean, negoziatzino mahaian, akordio bat lortuteko "zuhurkerian" dabilala beharginak dinoe Enpresa Batzordetik, eta mendeurren hau ospatuten bada, "beharginen belaunaldi batzuen ahaleginari esker" izan dala gogora arazo gura deutsie Zuzendaritzeari.

KONPOSTAJE PROIEKTUA

Baserritarrak ekoizle handien hondakin organikoak atez ate jasoteko proiektu pilotoa abiatu dabe Arratian

IK4 Azterlanek eta Igorreko Artadi mintegiko Geert Roels-ek supermerkadu, eskola eta abarreko hondakinak jaso eta konpostatzeko proiektu pilotoa ipini dabe martxan. Proiektuak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dauzan Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren diru laguntzea dauka. IK4 Azterlanek proiektuaren bideragarritasuna aztertzen dau, Arratiako Udalen Mankomunidadea materialak ipini eta begirale dago ea etorkizunean proiektua zabaldu daiteken jakiteko. Errota Arratiako Garapenerako alkarteak be laguntza emon deutso Igorreko baserritarrari, organikoak bereizi eta proiektu honetan parte hartzeako prest dagozan enpresak topatzeko.



Geert Roels, Ander Areitio eta Aitor Uriguen.

Bosgarren edukiontzia eta atez ateko sistemaren erdibidekoa

Zaborra kudeatzerakoan, hondakin organikoak jagokienean, Bizkaia, batez be, bosgarren kontenedorearen aldeko apustua egin dau. IK4 Azterlaneko Ander Areitio azaldutakoaren arabera, atez atekoan gehiago birziklatzen da baina denpora asko behar izaten da kantidade txikia batzeako eta ekonomikoki ez da errentagarria. Hori dala eta, proiektu pilotu honek erdibideko zerbaist palanteau gura dau: orokorrean bosgarren kontenedoreagaz funtzionau, baina organiko sortzaile handiak atez ateko zerbitzua eskeini.

Europak eskatzen dauan birziklatze-tasara ailegetako urrun dagoala Bizkaia esan eban Unai Rementeriak Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiak maiatzaren

Areatzako Balnearioa
Hotelean, Arratianon,
Batz-en eta Ormazabalen
jasoten daz organikoak
Artadi mintegikoak

15ean, 2030rako %65ra ailegau behar dala eta %44 birziklatzen dala Bizkaian.

Proiektu honek organikoak gehiago birziklatzeko balio ahal badau be, hori ez dala proiektuaren helburua dino Aitor Uriguen AUMko Ingurumen Teknikariak "Martxan dagoan proiektuaren garrantzia ez dago kudeatuko dan kantidadean, bideragarritasunean baino. Ingurumen, ekonomia eta normatibeari jagokan bideragarritasunean, hain zuzen".

Organikoak jasoteko bosgarren kontenedoreaz gainera, Arratian lur sailtxo bat daukien etxe askotan, eteko organikoak konpostau egiten dabez. Baita eskolak eta Institutuak be. Arratian, edukiontzi marroia, eteko konpostajea eta eskoletan eta Institutuan egiten danagaz, materia organikoaren %12 inguru kudeatzen da AUMen arabera. "Zabor guzitik, hondar organikoak %40-42 inguru suposatzen dau. %40-42 honen %12a ondo kudeatzen da. Beraz, organikoaren %12 ondo kudeatzen bada, organikoaren %88a errefusara doala esan gura dau" dino AUMko teknikariak.

Errefusa hori txikitze baliagarria izan daitekela proiektu hau be uste dabe proiektua abiatu dabenak. Eta sortzaile handiak, -supermerkaduak, jatetxeak, enpresetako jantokiak, eskole-tako jantokiak...- zerbitzu berezia behar dabela organikoak kudea-

tzeko uste dabe. IK4 Azterlaneko Ander Areitio aztertuko dau ea ekonomikoki bideragarria dan. "Gure lana izango da diru kontuak kalkuletea, ikustea zenbat kostau ahal dan eta gero hori zabaltzea. Urte amaieran egongo da komunikazio kanpaina bat, printzipioz, udaletxe eta mankomunidadeari zuzenduta". Proiektu pilotoa urte amaierara arte izango da. "Emoitzak jakin baino lehen, ezin dogu asmatu zenbat ekoizle handi egongo diran prest parte hartzeako, zenbat nekazari, zein izango dan kostua tona bakotxako, bete behar diran normatibak... Hau dana jakitea da proiektuaren helburua" azaldu dau Uriguenek.

Organikoen birziklatze maila sano txikia da Bizkaia osoan. Izan be, sortu barri dan Bizkaiko Zero Zabor plataformeak Berriari emondako datuen arabera, igaz 6.613 tona hondakin organiko batu ziran Bizkaian konposta egiteko, Gipuzkoan, barriz, 42.604 tona, nahiz eta Bizkaia baino 425.000 biztanle gitxiago euki.

Artadirako ongaria

Geert Roels-ek hektarea erdiko esplotazioa dauka Igorren, Artadi mintegian. Bertan, zugatz gazteak eta zugatzxoak hazten ditu. Haziak ahalik eta hurren jasoten dituala dino, mintegian bertan tratau eta gero ereiteko. Kimikarik ez dauanez erabilten, konpost asko behar dau, astean tona erdi bat inguru.

Erredakzioa

Austriar ereduari jarraituz, hondakin organiko asko sortzean diran lekuetan, hodakinok batu eta konpostau egiten dabez baserritarrak euren ortuetan ongari moduan erabilteko. Bizkaian, Berrizen eta Larrabatzun izan ziran hau praktikan ipinten lehenengoak, eta orain Igorrekoa eta lurretako beste nekazari bat hasi dira inguruko organikoak batu eta konpostatzen.

Urtebetez holan egin ostean, esperientzia balorau eta Bizkaiko leku eta baserritar gehiagotara zabaldu daiteken ikusiko da. Bideragarria bada, udalari eskatuko deutsee Arratiako baserritarren hondakin organikoen kudeaketaren proiektuan parte hartzeako, proiektuari jarraipena emon ahal izateko.

Baserritarrak, hondakinak kudeatzeagaitik diru bat jasoten dabe.

94 631 90 08

M. Jose zure arropa GALANTA

Agirre
Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaitu 101
R.P.S. 31/06

Kili~Kili
Arropa eta Puntakultura

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

Olaxte
OPTICA OPTICA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiako tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Maiatzaren 3an, Roels Arratiako hiru lekutan hasi zan organikoak batzean: Areatzako Balnearioa Hotolean, Arratianon eta Batz-en. Momentuz 300 bat litro jasoten ditu, baina Errotaren laguntzeagaz beste puntu batzuetan jasoteko akordioak egiten dabil eta Ormazabal-en be hasi da jasoten.

Enpresak, ostatuak edo organiko sortzaile handiak, baldintza batzuk bete behar ditue parte hartu ahal izateko. Alde batetik, hondakin organiko bolumen handia sortu behar dabe, hau da, sukaldia edo jantoki handi bat eukitea

ezinbestekoa da. Beste alde batetik, hondakin ontzia non euki be izan behar dabe. Osasun araudia dala eta, sukaldean ezin da euki. Kanpoan landatxo bat eukitea da aproposena. Azkenik, hondakinak ondo batu behar dira, beste ezezagaz nahastu barik.

Roels-ek, astean hirutan, batzean ditu organikoak aitatutako lekuetan. Hondakinak jasoteko erabiliko ontziak eroan, eta garbiak ixten ditu jatetxe eta enpresetan.

Gero etxera eroan eta konpostagailuan sartzean ditu hondakinok. Konpostagailu handia dauka, 2,20

m x 2,20 m.koa. "Handia aukeratu dot bertan sartu ahal izateko. Lan egiteko modu hau Larrabetzun ikusi dot. Holan gitxiagotan mobidu behar da konposta eta hobeto haizetuten da". Konposta egiteko organikoagaz nahastuteko behar dan parte lehorra eta ontziak Mankomunidadeak ipini ditu.

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, bagila osoa.
Tfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRRE: Elexaide 22. Eleizako lokaletan

Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Derrigorrezko Bigarren Hezwuntza
Batxilergoa
Hezwuntza Zirkoa
2 urteku 18ra

LORATEGIKO ZURE LAGUNA

STIHL

UDABARRIKO ESKEINTZA. Bateria aukera zabalena preziorik onenean.

**GARAJE
FELIPE**

Garbe 2. Igorre (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 673 63 39
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra z/g. Amorebieta (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 630 90 39

www.garajefelipe.es

MENDI MARTXEA

Ubideko Bira hilaren 4an



Erredakzioa

Aurtengo Ubideko Bira bagilaren 4an izango da. Atzen urteotan

legez, ibilbide bakarra egongo da, 21,5 km.koa. Partaideak 08:30ean urtengo dira herriko plazatik.

Igazko moduan punturik altuena Oketako tontorra (1.031 m.) izango da baina ibilbidea ez da bardina izango. Aurten ibiltariak, plazatik Kaltzadara joango dira eta handik Saldropora. Baztelarra, Upete, Atxurdin eta Lexarandatik pasau ostean igongo dabe Oketa. Gero Siskiñotik barriro be plazara ibilaldiari amaiera emoteko.

Izena egun berean emon dai-teke urten aurretik 07:30etik aurrera 10 euro ordainduta, edo aldeztatik ubidekobira.es.ti webgunean bagilaren 1era arte.

Sagardoa, txorizoa eta Ubideko gaztaia

Inguruko mendi paraje ederak dirala eta, asko izaten dira Ubideko Biran parte hartzean daben mendizaleak. Ibilbidea amaitutakoan partaideak saldea, sagardoa, txorizoa sagardotan eta Ubideko gaztaia izango dabe plazan indarrak berreskuratzeko. Ubideko produktuen otzara bat be zozketatuko da.

AZKOREA

Aitzol Atutxak Urrezko Aizkorako Bakarkako finala jokatuko dau

Erredakzioa

Maiatzaren 21ean, Galdakaon, lortu eban Aitzol Atutxa dimoztarak Urrezko Aizkorako finalerako txartela, errez irabazita. Lanak 23 minutu eta 11 segudotan egin ebazan Atutxak; bigarren Donato Larretxeak egin eban 26 minutu eta 34 segundoko denporeagaz eta hirugarren Ruben Saralegik 27 minutu eta 14 segundo eginda.

Finala Azpeitiako Izarraitz pelotalekuan izango da 12:00etan bagilaren 4an. Ugaitz Mugertza eta Iker Vicente be sailkatu dira finalerako. Laugarren aurkaria, Jon Rekondo izango da, maiatzaren 28an Amurrión jokatuko zan atzen

kanporaketako irabazlea.

Azpeitiakoa irabazten badau, Atutxaren bigarren Bakarkako Urrezko Aizkora izango da.



PELOTEA

Arratia-Nerbioi eskolarteko finalak Areatzan jokatuko dira bagilaren 3an



Erredakzioa

Arratia-Nerbioi eskolarteko finalak jokatuko dira Areatzan bagilaren

3an. Hasiberriak eta Aurreume-txoen finalak jokatuko dira eta Umetxoak, Umeak eta Gaztetxoak kategorietako partiduak. Aurretik,

16:00etan, plazatik frontoira desfilera egingo dabe 70 pelotari gazte inguruk.

Partiduak 17:00etan hasiko dira. Hasiberriak mailako finalean, Orozko eta Zaratamo neurtuko dira eta Aurreume-txoetan, Zaratamo eta Zornotza. Gero beste hiru partidu egongo dira. Partidu horreek Bizkaia mailan jokatuko daben Arratiako pelota eskoletako umeen selekzio batek jokatuko ditu.

Partiduak

Umetxoak kategorian, Dimako Iker Rekalde eta Zeanuriko Igor Egilior, Lemoako Julen Fernandez eta Adrian Lopezen kontra neurtuko dira.

Umeak kategorian, Zeanuriko Eleder Galarza eta Dimako Aratz Burdalok Zornotzako Erdu klubeko Julen Galarza eta Arrankudiagako Txaber Rioboo eukiko dabez aurkari.

Atzenik, Gaztetxoak kategorian, Zeanuriko Maren Emeraldik eta Dimako Xabier Rekaldek Usansoloko Gabirel Bañuelos eta Zeanuriko Daniel Beitia izango dabez aurrez aurre.

MENDI LASTERKETEAK



Aritz Egea helmugan igazko edizinoan. Argazkia: Unai Sorraín.

Gorbeia Suzien Ternuan izena emoteko epea zabalik dago eta Lasterketa Herrikoiko izen emotea hilaren 6an zabalduko da

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 7an izango da Gorbeia Suzien Ternua mendi lasterketea. Europako Txapelketea izango da aurten Sky modalidean eta horretan parte hartzeako hila-ren 1ean zabaldu zan izen emotea, baina Lasterketa Herrikoia be

egongo da eta bertan parte hartzeako izena emon ahal izango da bagilaren 6tik aurrera.

Izena, kirolprobak.com webgunean emon behar da eta partaideen kopurua gainditzen bada, ez da zozketarik egingo, izen emotearen ordena errespetauko da parte hartu ahal izateko.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

MARATOI TXIKIA

Patinez be egin ahal izango da Dima-Igorre ibilbidea Arratiako Maratoi Txikian

Arratiako XXXVIII. Maratoi Txikia bagilaren 4an izango da.



Erredakzioa

Edade guztietako lasterkariak hartzean dabe parte proba honetan, edade bakotxari egokitu-tako ibilbidea eginaz. Igaz, Ekaitz Kortazarrek eta Onditz Iturbe igorretarrak irabazi eben nagusien proba.

Nagusiak Zeanuri eta Igorre arteko 11 km.ak egingo dabez. Urtekerea Zeanurin izango da 10:15ean eta izen emotea Igorreko kiroldegian 08:45etik 09:15era edo Zeanurin bertan 09:15etik 10:00etara. Igorretik Zeanurira joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzak 09:30ean. 2000tik 2004ra bitartean jaiotakoak Arreatik Igorrera ibilbidea egingo dabe, Arreatik 10:30ean urtenda. Izen emotea Arteako plazan

izango da 09:30etik 10:15era arte. 2005etik 2007ra bitartean jaiotakoak, Dimatik Igorrera joango dira galapan. 10:00etan urtengo dira eta izen emotea Dimako plazan izango da 09:15etik 09:45era. Aurten, nobedade moduan, ibilbide hau patinakaz egiteko aukerea egongo da. Txikerrenak, 2008an jaiotakoak eta gazteagoak, Igorreko eskoletan zirkuitu bat egingo dabe. Izena kiroldegian emon behar da 08:45etik 09:45era bitartean.

Aldez aurretik be emon daiteke izena sailkapenak.com webgunean, 5 euro pagauta. Egunean bertan egin ezker, 8 euro pagau behar izango dabe nagusiak eta euro bi umeak. Arratia Ikastolak eta Arratia Institutuak antolatu dabe Arratiako Maratoi Txikia.

MENDI BIZIKLETEA

Zeberio XTrem Mendi Bizikleta martxan hiru ibilbide



Kartela.

Erredakzioa

Bagilaren 4an izango da VI. Zeberio XTrem Mendi Bizikleta martxea. Bertan mendi bizikleta zale ugari hartu ahal izango dabe parte aukeratzeko zailtasun desbardinako hiru ibilbide dagoz-eta. Gogorrenak eta martxeari izena emoten deusanak, XTrem izenekoak, 43 km. ditu eta 1.615 m.ko desnibela; luzeak 31 km. eta 1.160 m.ko desnibela eta laburrak 12 km. eta 250 m.ko desnibela. Urtekerea goizeko 09:00etan izango da Ermitabarritik.

Bagilaren 4an bertan emon daiteke izena proba hasi aurretik. Zeberio Udal, Ugaoko Sociedad Ciclista alkarte, Garri Bikes dendea eta Ermitabarri dira proba honen antolatzaileak.

PALEA

Zeanuri eta Areatzakoak Bizkaiko Eskolarteko Pala txapelkunak

Irati Urien / Erredakzioa

Zeanuriko Itsaso Larrinagak eta Maialen Landajok, Infantil-Kadete A kategorian eta Areatzako Uxue Alberdik eta Aiala Zautuak Benjamin-Alebin kategorian, irabazi dabe Bizkaiko Eskolarteko Pala Txapelketea.

Zeanurikoak, Arteagako Montorre taldearen kontra lehiatu ziran finalean, maiatzaren 13an. Bi set jokatu-erabagi zan bikote txapelketa, Zeanuriko Joko Alaiakoak irabazi ebezan bi setak 12-8 eta 12-5 emoitakaz. "Hasikeran urduri egozan Itsaso eta Maialen, baina indar handia daukie biak eta horregaitik irabazi ebela pentsetan dot. Gainera, Miribilla oso altua eta luzea izanda mesede eurentzat; indarragaz atzera botaten eben, zuloa egin eta pelotea baxatu... errez", dino Aitziber Egiarte Zeanuriko pala entrenatzaileak.

Alebinetan oster, Areatzakoak dira Bizkaiko txapelkunak. Uxue Alberdik eta Aiala Zautuak Zeanuriko Maialen Bengoetxea eta Iraia Larrinaga euki ebezan aurkari. Hiru set jokatu eta gero irabazi eban Area-

tzak, desentpatean. Holan ba, maila honetan txapelkun eta txapelkunorde Arratiako herri bi gelditu dira Bizkaikoan.

Itsaso Larrinaga eta Maialen Landajo Euskadiko Txapelketara joan ziran Bizkaiko txapelkun izategaitik, Arabako eta Gipuzkoako txapelkunak batera. Euskadikoan hiru lurraldeak bina partidu jokatu behar dabez euren artean, Gasteizko Ogeta frontoian danak. Maiatzaren 27an izan zan Joko Alaiako txandea eta 25-14 galdu eben Gipuzkoaren kontra. Urduri hasikeran eta hobeto gero, baina berandu erreazionau ebela azaldu dau Egiartek. Hurrengo egunean Araba euki eben aurrez aurre zeanuriztarrek, partidu burrutua izan ei zan entrenatzailearen esanetan eta atzenean 25-18 irabazi eban Bizkaiak. Amaituteko, bagilaren 3an lehiatuko dira Gipuzkoa eta Araba. Arabak irabazi ezker, Bizkaia txapelkun; bestela, Gipuzkoakoak izango dira txapelkunak. Zeanurikoak txapelkun izateko aukerea daukie ondino, baina holan izan ezean be azpitxapelkun badira daborduko.



Itsaso Larrinaga, Aitziber Egiarte eta Maialen Landajo.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

BERTSO BAZKARIA

Jon Maia eta Jokin Uranga Diman



Erredakzioa

Kultura Astearen barruan, Dimako Bertso Eskoleak eta Udalak bertso bazkaria antolatu dabe. Bagilaren 3an, 14:00etan, izango da frontoi txikian. Hamabosgarren edizino honetan, Jon Maia eta Jokin Uranga izango dira bertsolariak.

Jon Maia (Urretxu, 1972) bertsolaria izateaz gainera, abeslaria,

idazlea, itzultzailea eta gidoigilea be bada. 1997tik 2009 bitarteko lau Txapelketa Nagusietan izan zan finalista.

Jokin Urangak (Azpeitia, 1980) be hainbat txapelketatan hartu dau parte eta bertso eskoletako irakaslea da. Saiorako sarrerak Dimako tabemetan dagoz salgai, 10 euroko prezioan helduentzat eta 6 eurokoan ume eta langabetuentzat.

100. URTEURRENA

Ehun urte bete ditu Cementos Lemonak

Jon Urutxurtu

1917koa urte erabakigarria izan zan Lemoarentzat, enpresari talde baten ekimenaren ondorioz, ordutik hona zementua ekoiztuko dauan lantegiaren jaitza gertatuko da-eta: maiatzaren 30ean ehun urte bete ditu Cementos Lemoa lantegiak.

Garai haretan, Lemoa, Arratia osoa legez, geheinbat lur ekonomian oinarriturik bizi zan herri txiki bat zan: 1.300 biztanle inguru eukazan eta gehiengoak baserriko nekazaritzan jarduten eban.

Lehen Mundu Gerran (1914-18) mantendu eban neutraltasunari esker, Espainiako koiuntura ekonomiko orokorra egokia zan holango lantegi bat sortzeako: inbersinoak ugaritu egin ziran eta hazkunde ekonomikodun giro horretan zementuaren eskaerea izugari hazi zan. Egoera horren erdian, 1916ko abuztuan, Lemoan lur batzuk erosteko eskubideak bereganatzen ditu Juan Alberdik.

Jaitza: 1917ko maiatzaren 30ean

1917ko maiatzean, Juan Alberdi, Guillermo Saiz eta Maximo Fernandezek, harrobia izango dan lursail bat eskuratzen dabe Lemoatx mendian; hile berean, zementuaren produktzio arloko hiru patente erosten deutzaz Alberdik Joseph Julien Israel-eri. Beraz, lantegia sortzeako beharrezkoak ziran lehen oinariak jarri ebezan eta 1917ko maiatzaren 30ean, Ildefonso Urizar Bilboko notarioaren aurrean, eta 152 zenbaki-dun protokoloagaz, Sociedad Anónima Cementos Portland de Lemoa sortu zan, Juan Alberdi y García, Guillermo Saiz y Amuchástegui, Francisco de Ozollo y Garteiz eta Jeronimo Ochandiano y Larrearen izenean dagoan notario agiriagaz. Soziedade Anonimoa miloe bat pezetako kapitalagaz eta 40 urteko iraupenagaz osatzen da, eta Alberdi eta Sainzen

lurrak eta patenteak jartzen ebezan.

Enpresearen lehen Administrazio Kontseilua holan osatu zan: Presidente: Juan Alberdi y García; Presidenteordea: Francisco Ozollo Garteiz; Idazkaria: Ramón Igartua y Cucullu; eta Bokalak: Guillermo Saiz y Amuchástegui, Jerónimo Ochandiano y Larrea eta Rufino Ercoreca y Recart.

Lantegiaren eraikuntza lanak 1917an hasi ziran eta 1923an produktzio prozesua martxan jarri zan. Merkaduko eskaerai aurre egiten hasiko dira: lehen uneetatik salmentak bide onetik joan ziran eta bezeroen artean Espainia osoko lurralde eta enpresak egongo dira.

Beste errazoi batzuekatz batera zementu fabrika zabaltzeak eragin handia izan eban Lemoaren biztanleria hazkundera eta 1920-1930 hamarkadan Lemoa %29,25 hazi zan.

1930. urtea erabakigarria izango da enpresearen bizitzan, S.A. Ce-

mentos Portland de Lemonaren akzinoak eta obligazioak Bilboko Burtisan onartu ebezan eta.

Bere bizitzako ehun urteetan une onak eta ez hain onak bizi izan ditu Cementosek, adibidez, gai polemikoa izan da beti lantegiak eragindako kutsadurea, bereziki aireraturako hautsa.

Azken urteotako aldaketak

Azken urteotan eraldaketa handiak gertatu dira lantegian, bai erregaien erabilera arloan, bai emisinoen arloan eta bai lantegiaren modernizazioan. Aldaketak izan dira jabetzari jagokonez be: holan 2006an Portland FCCren filiala dan Cementos Portland Valderrivasek erosi eban Lemoako lantegia 122 miloe euro ordainduta. 2013an, espainiar merkaduak biziten eban krisiaren erdian, CRH irlandar enpresearen eskuetara igaro zan Uniland-en partizipazioaren truke eta gaur egun irlandarren eskuetan dago Lemoako zementu lantegia.

Gizaldi bat bete badau be eta bere bizitzan gorabehera handiak izan badiu be bere sorreran ekoizten eban produktu berbera ekoizten jarraitzen dau Cementos Lemonak: zementua.

MUSIKEA



Lion Heart izango da aurten be Zeberioko Metal Jaian

Erredakzioa

Bagilaren 2rako, barikua, heavy metal musikearen jaia antolatu dabe Zeberion. Lion Heart, Niketz eta Sabotaje taldeak eskeiniko dabez kontzertuak Zeberioko plazan. Jaia, 19:00etan hasiko da bertso-merienda bategaz, eta 00:30etik aurrera Batzokian egingo dan Jebi Jaiagaz amaituko da.

Bertsomeriendan, Arrigorriaga eta Zeberioko bertsolariak buzartuko dabez bertsoak eta musika heavya, kontzertuen aurretik.

Kontzertuok iluntzeko 20:00etan hasiko dira, Lion Heart metal klasikoa egiten dauan taldeagaz; 21:30ean, Niketz, Etxebarriko taldearen txandea izango da eta, 23:00etan, Sabotaje taldearena. Gauari amaierara emoteko barriz, Jebi Jaia ospatuko dabe Batzokian.



arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ZEKUTZE
JAIETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejaietxe@hotmail.com

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN ★ SOLARES

Pelig. Mendizola, s/n. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 600 480 830 fax. 600 250 717

BICIS

Arratiarron dendea

JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

BICIS AN BIZI
www.biziamorebleta.com • AMOUEBIETA-ETXANO

ANTZERKIA

Bagilaren 11n *Gezurretan/Contando mentiras* antzezlanaren estreinaldia izango da Igorren

Erredakzioa

Igorren antzerkiaren bitartez feminismoa eta jabekuntza landuten dauan andra taldeak *Gezurretan/Contando mentiras* antzezlanaren estreinauko dau Lasarte Aretoan, bagilaren 11n, 19:30ean. Bederatzi aktorek, gizarte utopiko bateko albistegia ekarriko dabe eszenalekura hiru hizkuntza erabiliz: euskera, gaztelania eta arabiera. Taldearen hirugarren lana da hau.

Igorreko Emakumeen arteko topaketa interkulturaletatik sortu zan taldea orain dala urte bi eta errealdade plural horren erreleju dira komedia honetan erabilten diran hiru hizkuntzak. "Gurako geunke hizkuntza gehiago egotea, Igorreko errealdadea ondino pluralagoa dalako, baina jentea etorri ahala, gaineratuko doguz hizkuntzak" dino Soraya Lizundia taldekoak. Izan be, talde zabalada da, eta zabalik dago parte

hartu gura daben andra guztiai.

Astean behin, bederatzi andra batzean dira Kultur Etxean, antzezlan bat sortuteko Miriam Herbon-en laguntzeagaz. Prozesu guztia landuten dabe: antzezlanaren idea nagusia ebatzi, antzezlan sortu, antzeztu, eszenografia, jantziak egin... Eta hola urte bitan hiru lan sortu dabez.

Hirugarren lana

Aste batzuk baino ez dirala falta eta orain astean hirutan batzean dira; izan be, esperientzia izan arren, bildur eszenikoa beti hor dagoala dino.

Gezurretan/Contando mentiras, taldearen hirugarren lana da. Lehenengoa, *Mujeres saliendo del cuento* 2016ko urtailan estrenau eben Lasarte Aretoan, arrakasta handiz. Bigarrena, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako aurkezpenarako enkarguz sortutako kale antzerkia izan zan.

Gezurretan/Contando mentiras

Egile eta aktoreak: Samiae Aznabat, Elda Barrero, Marisol Calzada, Maria Jesus Geresta, Maite Intxaurbe, Juanita Lizarralde, Soraya Lizundia, Marian Rekagorri eta Begoña Uriarte.
Urtea: 2017. **Generoa:** komedia. **Hizkuntza:** euskera, gaztelania eta arabiera. **Estreinaldia:** bagilaren 11n, 19:30ean, Lasarte Aretoan. **Zuzendaria:** Miriam Herbon.



EUSKAL JAIA

Lemoako Euskal Jaia hilaren 3an

Erredakzioa

Seigarren aldiz, herriko kuadrillak adostuta, bagileko lehenengo zapatuan, Euskal Jaia antolatu dau Lemoako Jai Batzordeak. Jaiaren helburua, "euskal ohiturak aldarrikatzea eta baserri munduari

babesa adierazotea" da.

Lehian taldeak joko dau Elizondon bagileko lehenengo zapatuan, 19:30ean. Taldeak euskal kantu herrikoien bersinoak eskeintzen ditu, sano kantu ezagunak, danak dakiezan kantuak; taldearen helburua jentek eurekaz batera kantetea da eta.

Horren aurretik be egongo da nondik nora ibili jai giroan Lemoan zapatu horretan. Izan be, eguerdi partean hasiko da jaia, 13:00etan, Jubiladuen tabernatik abiatuko dan poteo musikatuagaz. Poteoaren ostean, herri bazkaria egongo da Arraibin, 15:30ean.



JAIA

Open Torontile jaia, Kiñun eta Mataderoan

Erredakzioa

Bagilaren 3an, Open Torontile izeneko jaia ospatuko dabe Arteako Mataderoan. Egun osoko jaia izango da, proiektua jakitera emon eta bultzatzeko. Musikea zuzenean eta tailerra egongo dira besteak beste. Sormenari lotutako proiektua da Torontile eta Arratiako sortzaileen lanak ikusgai egongo dira.

Diseinu eta serigrafia proiektuak, atek zabalduko ditu espazio hau herrira hurreratzeko asmoz. Emma Aguilar eta Maitane Iruarizaga diseinatzaileak osotuten dabe. Torontilek Igorreko Kiñu Gaztetxean emon ebazan bere lehen pau-suak; gaur egun Arteako Matade-

roan daukie finkatuta tailerra.

Sormen jaia

Open Torontile egun osoko ekimena da. Goizeko 11:00etan, Gaztetxekeo paretak margoztuko dabez eta erakusketea be egongo da. Arrastian, 17:00etan, serigrafia ezetu eta praktiketako aukerea izango dabe tailerrera hurreratzan diranak. Jana eta edana ez dira faltauko eta musikea zuzenean egongo da Arratiako Inagarien eskutik.

Torontile sormenari lotutako proiektua danez, eta sormena bultzatu, agertu arazo eta aldarikatu gura dauanez, Arratiako "ezkutuko" artisten marrazkien erakusketea be egongo da Arteako Gaztetxean.

Maiatzaren 27an Kiñu Gaztetxean

Maiatzaren 27an osteran Kiñu Gaztetxean horma bat margoztu eben Hibernando Studioko artistak eta hurreratzeko jentek, horren ostean bazkaria egin eben Gaztetxean bertan.



DUNBA

Areatzako eskolako bigarren zikloko ikasleak Barriako aterpetxera joango gara

Jolastuz eta ekintza desbardinak eginaz, euskeraz biziteko aukera zoragarria izango dogu lau egunez.

Areatzako eskolako LH2ko ikasleak

Eskolako ikasleak bagilaren 5etik 8ra Barriako Euskal Girozte Barnetegian egongo gara. Ez da lehen aldian Barriara goazela, igaz 4. mailakoak bertan egon ginalako. Jolasak, jan-

tzak, txangoak eta ekintza dibertigarriak euskeraz egingo doguz.

Barria XII. mendeko monasterio barriztua da, aterpetxe bihurtua. Bertan, 2005-2006 ikasturtean zabaldu zan lehen aldiz Euskal Girozte Barnetegia.



Barria Ozaeta eta Zaldondo herrien artean kokatzen dan Arabako, ipar ekialdeko, herri txikia da. Herria mendiz eta basoz inguratuta dago, Uribarri urtegitik be gertu dago. Horregaitik, bizikletaz eta oinez txangoak egiteko aukera

parebakoa eskeintzen dau.

Aterpetxeak solairu bi ditu: Lehenengo solairuan, ekintzak eta jolasak egiteko gelak dagoz eta bigarren solairuan, logelak eta duxtak dagoz. Ondoa, beste eraikuntza bat dago eta bertan,



jantokia dago. Inguruan futboleko, saskibaloiko, harrapaketa... olgetan ibilteko leku ederra dago.

Areatzako ikasleok egun eder, zoragarri eta dibertigarriak pasau gura doguz: barnetegian lagunak olgetan, euskeraz berba egiten, hizkuntza aberastuten eta gauza barriak deskubriduten.

Areatzako umeak urduri gagoz eguna noz helduko zain.

AGENDEA

BAGILAK 1
BEDIA

16:30-19:30, hilaren 2ra arte, jaietako paelletan parte hartzeako izen emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 9ra arte, bagilaren 18an izango dan Jubiladuen bazkarirako izen emotea liburutegian.

IGORRE

18:30ean, Errakaleor Bizirik! manifestazinoko Arratiako zutabeen parte hartzeako batzarra Kiñu Gaztearen.

Hilaren 7ra arte, garagarriaren 17tik 20ra Jakara urtekerarako izen emotea Gazteria Zerbitzuko bulegoan edo 688 898 765 telefonoan. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Prezioa: 60 euro. Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

Hilaren 7ra arte, garagarriaren 13tik 15era Laidara urtekerarako izen emotea Gazteria Zerbitzuko bulegoan edo 688 898 765 telefonoan. Ekintzak: piragua, Atxarrera urtekerak, paddel surf. LH6. eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Prezioa: 10 euro. Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

Hilaren 8ra arte, *Yurre-Igorre 1936/1937 Badira larogei udabarri* erakusketekultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 9ra arte, Lemoako jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Udaletxean.

ZEBERIO

Hilaren 30era arte, oinarriko informatika ikastaroetan izena emoteko epea. Udaletxean.

BAGILAK 2
AREATZA

20:00etan, Areatzako Gure Esku Dagok antolatuta, Mosaiko erraldoia plazan.

DIMA

19:30ean, konzentrazioa, "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz!". Plazan.

22:00etan, Sicacusticaren kontzertua

Ugatxa tabernan.

IGORRE

22:00etan, zine emonaldia Basauntzeko jaietan, ermitan. *Igelak* filma.

LEMOA

19:00etan, berbaldia Karabie Gaztearen "Gaur egungo egoera Saharan". Bitartean tea dastatuteko aukerea egongo da. Ostean, afaria eta dokumentala; Saharako bizipenak.

ZEBERIO

Metal Jaia. 19:00etan, bertso-meriendea; 20:00etan, Lion Heart taldearen kontzertua; 21:30ean, Niketz; 23:00etan, Sabotaje. Ondoren Jebi Jaia Batzokian.



Irrien Lagunen-en ikuskizuna Igorren

Pupu eta Lore Haizearen herrira ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da bagilaren 2an 17:00etan Igorreko Kultur Etxean.

Pupu eta Lore protagonistak poz-pez dagoz aitona Manolo etorri jaielako bisitan bere gitara eta guzti. Kantu, jantza eta jolas interaktibo bidez, parte hartza konbidauko ditue umeak eta nagusiak ordubetez.

Asier Sotaren zuzendaritzapean, Iraitz Lizarragak (Pupu), Ekain Ibar-gurenak (Lore) eta Inaxio Tolosak (aitona Manolo) Imanol Urbietaren kantuetan oinarritutako kantu, jantzaz eta jolasez betetako ikuskizuna taularatuko dabe Igorren. Musika moldaerak Xabier Zabalarenak dira eta Ainere Tolosak eta Elene Kortaxarenak kolaborazioak egingo ditue Kaxporreta Kooperatibearen produkzio honetan.

BAGILAK 3
ARANTZAZU

Argiñatx Mendi Taldearen urtekerea. Orisol (1.132 m.).

AREATZA

EAJ-PNVren Arratiako alderdikideen eguna. 12:00etan, mitina plazan, Andoni Ortuzar eta Ibaso Atutxa. Egunean zehar, musikea, triki poteoa, umeentzako puzgarriak.

16:00etan, Arratia-Nerbioi eskolarteko finaleko desfilea plazatik frontoira; 17:00etan, partidua frontoian.

20:00etan, Cloverwind-en kontzertua The Quiet Corner-en.

ARTEA

Open Torontile jai. 11:00etan, Gazteko paretak margoztu; 17:00etan, serigrafia tailerra; 18:30ean, Inagariaren kontzertua. Jana eta edana egongo da.

DIMA

13:30ean, Dimako Alkarregaz Gure Esku Dagok antolatuta, Prest Eguna.

14:00etan, bertso bazkaria Jon Maia eta Jokin Uraga bertsoariakaz frontoi txikian.

20:30ean, Uckaiaren kontzertua Ugatxa tabernan eta 22:00etan, Trastornad2 taldea.

IGORRE

Basauntzeko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

22:00etan, zinea *Z La ciudad perdida* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen sari banaketea. Lemoatxa (363 m.).

Euskal Jaia. 13:00etan, poteo musikatua; 15:30ean, bazkaria; 19:30ean, erromeria Lehian taldeagaz.

ZEANURI

Zeanuriko eskolako jai. 11:00etatik aurrera puzgarriak, ohe elastikoak... 12:00etan, tailerrak. 14:30ean, bazkaria. 16:00etan, gurasoentzako zozketa mundiala. 17:00etan, ume eta gurasoentzako jolasak. 19:30ean Saioa Mugimix.

BAGILAK 4
ARRATIA

Arratiako XXXVIII. Maratoi Txikia. 08:45etik aurrera izen emoteak. 09:30ean, autobusa Igorreko kirolegetatik Zeanurira. Urtekerak: Zeanuritik 10:15ean, Arteatik 10:30ean, Dimatik 10:00etan, Igorreko eskoletako zirkuitua 10:00etan.

AREATZA

10:00etan, Euskal Eskola Publikoaren 26. Jaira joateko autobusa.

IGORRE

17:00etan, zinea *Richar zikoina*; 19:30ean, *Z La ciudad perdida* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea. Behorlegiturru (1.365 m.)-Hauskoa (1.268 m.).

UBIDE

08:30ean Ubideko Bira. Plazatik hasita.

ZEBERIO

09:00etan, Zeberio XTrem BTT martxea.

BAGILAK 5
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 16ra arte, Sanjuanetan Play-backean parte hartzeako eta txosnan lagunduteko izen emotea liburutegian. Play-back eguna: bagilaren 22a.

IGORRE

18:00etan, Arratiako Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak orain arte egindako lanaren gaineko tailerra Kultur Etxean.

BAGILAK 7
IGORRE

19:30ean, goi tensinoko lineak zeharkatuten dauzan herrien arteko sarea sortuteko batzarra. Kultur Etxean.

BAGILAK 8
IGORRE

19:00etan, kalejira feministea Kultur Etxetik hasita.

BAGILAK 9
AREATZA

20:00etan, Confluence The Quiet Corner-en.

IGORRE

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

BAGILAK 10
BEDIA

Eleizalde Bediako Jubiladu eta Pensionisten alkarteak antolatutako urtekerea: Comillas-Santillana del Mar.

IGORRE

08:30ean, Ermiten ibilaldia. Kultur Etxetik urtenda.

BAGILAK 11
ARTEA

11:30ean, Xake erakustaldia AKKTK antolatuta. Bizkaiko Xake alkarteko kide batek 20 lagunena kontra aldebereko partidea jokatu dau plazan.

IGORRE

19:30ean, *Gezurretan/Contando mentiras* antzezlan Lasarte Aretoan.

BAGILAK 13
BEDIA

Batzarrak liburutegian. 17:00etan, Txiki Txoko; 18:00etan, udalekuak; 19:00etan, Uda Gaztea.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

DANERIK

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeerea eta 2,60 m.ko altuerea. Deitu 675 712 841 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Pupu eta Lore Haizearen herrira* ikuskizunerako.

Andoni Agirre (Artea)
Aiala Landajo (Igorre)



2 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.

Anuska Emaldi (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Azken letrea. Zuzen. 2.- Arsenikoa. Hegal. 3.- Greziako mitologia, Arkadiako artzainen jainkoa. Birritan, begiaren distira. 4.- Espiritua. Oxigenoa. 5.- Nori atzizkia. Bokala. Astatoa. 6.- Letra bat. Enparantza. 7.- Arrainak harrapetako. Itxura. 8.- Dontzeila. Lutezioa. 9.- Garbi. Nitrogenoa.

GOITIK BEHERA

1.- Euri-jasa. 2.- Irabazleari emoten jako. Birritan, zurrumurruru. 3.- Bokala. Persona izenordaina. Ugaztun karniboroa. 4.- Radioaren sinboloa. Kimikan, materia kantidadearen banakoa. Bokala. 5.- Kasketaldia. Arbuiozko interjekzioa. Konsonantea. 6.- Euzko Gaztedi. Narra. 7.- Eromen.



Topau arotzeriagaz loturaren bat daukien zazpi gauzaren izenak.



AKI MI KO

Iman Olatu



umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu Bizara egin eta buzkunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behe IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRAZIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: uruzulu@euskalnet.net

AITOR ARBULU ETA JUREK ZIEMKIEWICZ

Hamaika ikusteko (eta grabetako) jaioak

Jurek Ziemkiewicz-ek eta Aitor Arbuluk apirilaren 21ean Kanadako Mendi Harritsuetan grabatuko bideoa birala egin da. Edurjausi umela, motela eta handia jasoten dau bideoak, bere bidetik doan edur erreka ikusgarria. Oporretan joan ziran Ziemkiewicz, Arbulu eta Ane Hernani mendi eskia egiten eta edurjausia gertatu zanean bertan egoteko suertea izan eben.

Ziemkiewicz zeanuriztarra Diman bizi da eta Arbulu Elorriokoa Artean. Biak Heziketa Fisikoko irakasleak dira.

Erredakzioa

Oporretan joan zinien Kanadako Mendi Harritsuetara. Kontau apur bat opor horreek.

Jurek Ziemkiewicz: 2013an Kanadan egon nintzan eta han ezetu neban Igor Bernas durangoztarra. Mendiko eskiko gida moduan behar-rean, hamar urtez bizi izan da han. 2016ko udagoienera hemendik ibili zan eta esan euskun aurtengoa azken urtea izango dala Kanadan, barrero Euskal Herrira etorriko zala. Kanadara joan eta baliabideak aprobetxetako esan euskun: bere etxea, bera han egotea...

Aitor Arbulu: Hamar urtetan gauza asko pilotzen dira eta idea zan lagunari lagundutea gauzak ekarten eta han egoteko aprobetxau.

J.Z.: Udabarran Aitor, Ane eta hirurok joan ginan mendiko eskia egiten eta Igorri gauzak ekarten lagunduten. Igorrek 150 kilo inguru ekarri dauz eta gutako bakotzak hartu behar izan dogu maleta estra bat.

Han Igor Bernas gida zala, eskietan ibili zarie, orduan?

J.Z.: Bai. Igorrek helioeski eta mendiko gida lanetan egiten dau behar. Hara gora jentea helikopteroan joaten da, *lodge* batzuetan lo egin eta aste osoan zehar eskietan ibili. *Lodgetan* sukaldaria dago eta bezeroak mendiko gidagaz ibiltzen dira, mendian galduta, aste osoan eskietan.

A.A.: Domekatik domekara izaten da. Domeketan joaten da helikopteroa. Eta guk aprobetxau genduan helikopteroaren bajea, hara joateko.

J.Z.: Egon ginan Mendi Harritsuetan eskia egiten beragaz eta astebete pasau genduan holako *lodge* baten. Bueltan geure kabuz bajatu ginan, oinez.

Eta orduan ikusi zenduen edurjausia, ezta? Zelan izan zan?

A.A.: Bai, barikuan izan zan, apirilaren 21ean. Nik hurrengo egunean, zapatuan, hartu behar neban abioia, eta horretarako Vancouverera joan behar nintzan, gaueko hamabietan autobusa hartuta.

J.Z.: Ebatzi genduan oinezko bidetik bajatutea, helikoptero barik. Horretarako egin behar genduzan 35 km. eskietan eta oinez, lagun batek ibitako todoterrenora heldu arte. Edur gitxi egoan eta eskiak, motxilak eta ibiltzen ordu asko izan ziran. Ibilgailuan gauzak kargau eta beste hirurogeta piku kilometro egin genduzan mendiko bideetatik.

Mendian eski egonaldia amaitu eta lodgetik bajatukeran ikusi zenduen edurjausia.

J.Z.: Bai, aurreko astean mendiko eskia egiten ibili ginan. Hemen be bai ibiltzen gara, baina hango baldintzak eta hango terenoa, eskala handian da. Eta Igor han bertan egotea segurtasun handia zan. Edurra dagoanean beti dago edurjausi arriskua. Han handiagoak dira, terenoa handiagoa dalako, baina ipinten genduzan neurriak ezer ez gertatzeko.

Azken egunean beherantza gatzala, edurjauste famoso hori gertatu zan, baina ez zan izan ezustekoa. *Avalanch path* deitzen diran bide batzuk kurutzatu behar genduzan. Jakinaren gainean gengoan eta adi joan ginan. Justu azkena kurutzatu genduan, ordubiak edo ziran. Egurrezko kartel bat egoan eta zera ipinten eban: *Expect the unexpected* (espero egizu ezustekoa). Hareri argazia atera eta 1.500 m. gorago edur plaka bat apurtu zala entzun genduan.

Hasieran bildurtu egin ginan eta galapan hasi, baina segiduan konturatu ginan bere bidetik etorrela. Entzun gendunetik agertu arte, minutu bi pasau ziran. Edur erreka 10 minutu egon zan gure aurretik pasetan parau barik. Horretan lan egiten dauan lagun batek, irudiak ikusita eta neurketak eginda, esan euskun 1etik 5erako eskalan, 4,5ekoa dala edurjausi hori. Eta beheko partean edurra egon izan balitz, 5ekoa izango zala. Izugarria!

A.A.: Egia da ez dozula espero holango ezer ikustea, baina kontzientzia ginan eta hartuten genduzan neurriak. Holango lekuetatik azkar

pasetan saiatzen ginan, adi egoten zaratai, ez pasetan danok batera, zerbaist gertatu ezkerok aukerea izateko lagunari lagunduteko... baina benetan gertatu arte, ez dozu espero. Ikusgarria benetan!

Aitor, azkenean hartu zenduen abioi ha?

A.A.: Bai. Jurek eta Ane geratu ziran beste astebete-edo Kanadan, eta ni bueltau nintzan. Edurra gustetan jakon batentzat paraisoa da ha. Pribilejauak izan gara.

Bideoa birala egin da.

J.Z.: Lagun kuadrileari bialdu neutsan bideoa whatsappetik. Hurrengo egunean, Jon Artano EITBko kazetaria kontaktuan ipini zan nigaz, esanez EITBra bialdu behar ebal. Eta albistegetan agertu zan. Aitor abioian egoan, gu kontaktua galduta...

A.A.: Amak telebistan ikusi eban nik bialdu baino lehenago eta ni han nengoala jakinda.

J.Z.: Gau horretan ETBn agertu zan. ETBtik segiduan Euskadi Irratitik deitu eusten. Gu Kanadako Mendebaldeko kostan gengoan. Gero, holango bideo biralak zabaltzen dabazan konpainia batetik deitu eusten Los Angeles-etik.

Los Angeles-ekoak ez dogu traturik egin, baina New York-eko beste kopainia bategaz bai; Storyful-egaz. Yahoo, National Geographic, ABC



News... eta holango konpainia handiak egiten dabe behar. Bideoa saltzean deutsee eta portzentaje bat eurentzako da eta beste bat guretzako.

Datorren urtean Kanadan ikusten bagaitzuz, horrek esan gura dau bideoa ondo saldu dala. Ezpabere, Gorbeian egongo gara eskietan.

Edurjauste horreek ohikoak dira. Ez egoan holango bideoarik?

J.Z.: Mundu honetako jentea ipini da geugaz harremanetan, esanez bideoa dokumentu zientifiko moduan oso inportantea dala, gitxitan grabau dirala tamaina horretako eduroleak, naturalak eta momentuan bertan egonda. Eta justu personen bizipenak entzuten dira. Holango

oso gitxi ei dagoz.

Edur umeleko erreka bat da. Urtesasoi honetan urtero gertatzen dira holangoak. Edur piloa dago mendian, tenperaturak epeldu egiten dira, edurrak pisua hartzean dau... Edurjauste mota hau umela eta motela da. Laba erreka baten antzekoa.

A.A.: Bideoan emoten dau arriskua handiagoa dala. Ez zan istripurik gertatu eta guk suertea euki genduan ha bertatik bertara ikusi gendualako.

Orain ze plan daukazue?

A.A.: Orain Gorbeia Suzien-en antolokuntzan murgilduta gagoz eta aurrera begira badaukaguz gauzak, baina ezin dira kontau, ez dagozalako gutziz lotuta.

ERASMUS

ELKARLANEAN

ERROKAK GAINDITUZ

TEKNOLOGIA BERRIEKIN

FORMAKUNTZA DUALEAN

IKASTEN IKASIZ

ENPRESAK SORTUZ

ATARA ZURE TALENTOA

AURREMATRIKULA Ekainaren 5tik 16ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Fabrikazio mekanikoko bidezko produkzioaren programazioa

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

Mekanizazioa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

Elementu mekanikoen fabrikazioa

Elektrizitatea eta elektronika

ZULAIBAR

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

www.zulaibar.org

Eskatu hitzordue: 94 673 91 16